

CALVET BAROMETROA

Kike: Euskara baino hizkuntza txikiagoak ezagutu ditugu eta baita handiagoak ere. Baina hiztun kopurua ez da hizkuntza baten bizi indarra neurtzeko aintzat hartu behar den faktore bakarra, bestelakoak ere hartzen ditu kontuan Calvet Barometroak. Baina nor da Calvet?

Calvet Barometroa. Jean Louis Calvet Frantzian dagoen soziolinguista garrantzitsuenetako bat da eta berak, bost ehun mila hiztunetik gora dituzten munduko hizkuntza guztien bizi-indarra neurtu du, hainbat aldagairen arabera: hiztun kopurua, egoera legala, liburu ekoizpena eta itzulpenak, etab. Bada, Calvet Barometroak, euskara, munduko hizkuntzen artean 51. lekuan kokatzen du bere bizitasunaren eta indarraren arabera, mazedonieraren eta letonieraren artean.

Kike: Internet eta sare sozialei garrantzi handia ematen die Calvet Barometroak. *Wikipedian* esate baterako, euskarak presentzia handia du: ehun eta hirurogei mila artikulutik gora. Bertan erabiltzen diren berrehun eta laurogei hizkuntzetatik euskara hogeita hamabostgarren tokian dago, artikulua kopuruaren arabera. *Twitter* berriz hogeita hemezortzi hizkuntzatan bakarrik erabili daiteke, eta aizue! Euskara da horietako bat!